

Aitor Zurimendi Isla

Unibasq
San Prudentzio, 8
01005 Vitoria-Gasteiz

T 945 123 356

aitor.zurimendi@unibasq.eus
www.unibasq.eus

Ikerketa

Ikasgaiak: Tituluak-baloreak, Garraioaren Zuzenbidea, Konpetentziaren Zuzenbidea, Kontsumitzailearen Babesa.

Argitalpenak: Sei monografia, bi bakarka eta lau beste egile batzuekin batera. Hogeita bi artikulu aldizkarietan eta hogeit hamar kapitulu liburu kolektiboetan.

Beste datu batzuk: Hamabost ikerketa-proiektutan parte hartu du, baita erakunde publiko eta pribatuekin sinatutako bost ikerketa-kontraturen esparruan ere.

Hirurogeita bost aldiz parte hartu du Biltzar eta Jardunaldietan ponente gisa, baita zientzia-ekitaldietarako hamabost Batzordetan ere.

Gainera, hiru ikerketa-egonaldi egin ditu, München, Freiburgen eta Oxforden.

Horrez gain, lau Aldizkaritako erredakzioan edo kudeaketa akademikoan parte hartzen du edo parte hartu du.

Irakaskuntza eta Kudeaketa

1999-2002 Doktoratu aurreko Ikerketa Bekaduna.

2003-2009 Merkataritza Zuzenbideko doktorea eta irakaslea (UPV/EHU).

2009- Merkataritza Zuzenbideko irakasle titularra.

2015eko urria- Unibasqeko zuzendari laguntzailea.

Aldi horretan, Euskal Herriko Unibertsitateko Enpresa Zuzenbideko Saileko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Atalaren koordinatzailea ere izan da, baita fakultate bereko Kalitate eta Berrikuntzako dekanordea eta Hezkuntza Aholkularitzako Zerbitzuko Bizkaiko koordinatzailea ere.

Eginkizun horiek betetzeak aukera eman dio kalitate- eta berrikuntza-gaietan prestatzeko eta Goi-mailako Hezkuntzako hainbat ebaluazio-prozesutan parte hartzeko.